



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

2026. urterako udal prezio publikoen tarifen aldaketak

2025eko azaroaren 21ean izandako Tokiko Gobernu Batzarrak udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik 2026.urtean ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen testu erregulatzailaren prezio publikoak onartu ditu eta 2026/43 Alkatetza Dekretuz Urdaibai Kirol txartelaren prezio publikoak onartu dira.

Bermeon, 2026ko urtarrilaren 8an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**UDAL ESKUMENENKO JARDUERAK EGITEAGATIK EDO ZERBITZUAK
ESKAINTEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN
TESTU ERREGULATZAILEAREN PREZIO PUBLIKOEN TARIFEN ERANSKINA****PREZIO PUBLIKOEN TARIFEN ERANSKINA**

1. Bermeoko Udalak emandako zerbitzuei dagozkien prezio publikoen zenbatekoaren eta tarifen eguneraketa hauxe da:

2026. urterako prezio publikoak	Euroak
Zerbitzu edo jarduera mota	
1. <i>Euskara ikastaroak, tailerrak eta antzerkiak</i>	Aldaketak
1.1. Ume eta gaztetxo etorkinentzako euskara eskola lagungarriak. Matrikula	10,00
1.2. Heldu etorkinentzako euskara eskolak. Matrikula	10,00
1.3. Gurasoentzako euskara eskolak. Matrikula	20,00
1.4. Nagusien antzerki tailerra. Matrikula	125,00
2. <i>Kultur ekintzak: Antzerki, kontzertu eta jaialdiak</i>	Aldaketak
2.1. Umeen antzerkirako sarreraren prezioa	5,00
2.2. Antzerki arinetarako sarreraren prezioa	4,00
2.3. Antzerki amateur edo berezien sarrera prezioa	5,00
2.4. 600 euro -1.500 euro (1.815 euro arte, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, oinarritzko sarreraren prezioa	7,00
2.5. 600 euro - 1.500 euro (1.815 euro arte, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, deskontua duen sarreraren prezioa	5,25
2.6. 1.501 euro - 2.500 euro (3.025 euro arte, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, oinarritzko sarreraren prezioa	9,00
2.7. 1.501 euro - 2.500 euro (3.025 euro arte, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, deskontua duen sarreraren prezioa	6,75
2.8. 2.501 euro - 4.000 euro (4.840 euro arte, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, oinarritzko sarreraren prezioa	11,00
2.9. 2.501 euro - 4.000 euro (4.840 euro arte, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, deskontua duen sarreraren prezioa	8,25
2.10. 4.001 eurotik gorako (4.841 euro, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, oinarritzko sarreraren prezioa	13,00
2.11. 4.001 eurotik gorako (4.841 euro, BEZ barne) kaxeta duen antzerkian, deskontua duen sarreraren prezioa	9,75
2.12. Gabonetako pailazoen jaialdirako umeen eta nagusien sarreraren prezioa	8,00
2.13. Musika kontzertuak	5,00
3. <i>Nestor Basterretxea Aretoa: Zineko prezioak</i>	Aldaketak
3.1. Sarrera orokorraren prezioa	6,00
3.2. Ikuslearen eguneko sarreraren prezioa (astelehena)	4,50
3.3. Umeen sarreraren prezioa	5,00
4. <i>Argitalpenen prezioak</i>	Berdin
4.1. Jaietako liburuaren salmenta prezioa, aleko	1,00
5. Publizitatea jartzeagatik prezioa	Aldaketak
5.1. «Bermeon zer?» agendan publizitatea jartzeagatik prezioa/ hiru hilabetetik gora	250,00



2026. urterako prezio publikoak	Euroak
6. <i>Udal liburutegiko zerbitzuen prezioak</i>	Berdin
6.1. Liburutegian ateratzen diren fotokopiak A4 orrian, orrialdeko prezioa	0,10
6.2. Liburutegian ateratzen diren fotokopiak A3 orrian, orrialdeko prezioa	0,15
6.3. Liburutegian internetetik jaitzita edo datu-baseetako informazioa A4 orrian ateratzea, zuri-beltzean, orrialdeko prezioa	0,20
6.4. Liburutegian internetetik jaitzita edo datu-baseetako informazioa A4 orrian ateratzea, koloretan, orrialdeko prezioa	0,30
6.5. Informazioa CDan ateratzea, prezioa	0,95
7. <i>Udal baliabideak uztearen prezioak</i>	Berdin
7.1. Plastikozko hesia, unitatea	4,96
7.2. Burdinazko hesia, unitatea	4,19
7.3.1. Plastikozko mahaia, unitatea	13,38
7.3.2. Plastikozko mahaia frontoirako, unitatea	14,72
7.4.1. Egurrezko mahaia eta bere astoak, unitatea	13,38
7.4.2. Egurrezko mahaia eta bere astoak frontoirako, unitatea	14,72
7.5.1. Egurrezko aulkia, unitatea	2,26
7.5.2. Egurrezko aulkia frontoirako, unitatea	2,53
7.6. Konoa, unitatea	1,55
7.7.1. 4 modulu arteko tarima eta eskailera	174,79
7.7.2. 4 modulu arteko tarima eta eskailera frontoirako	201,79
7.8.1. Eskenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera	480,66
7.8.2. Eskenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera frontoirako	507,63
7.9.1. Eskenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera	1.062,90
7.9.2. Eskenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera frontoirako	1.115,06
7.10. Frontoiko zoruaren babes goma-alfonbra	151,06
7.11.1. Proiektorea	18,67
8. <i>Gizarte ongizateko zerbitzuen prezioak</i>	Aldaketak
8.1. Zaharren egoitza	
8.1.1. Hileko egonaldia	3.574,26
8.1.2. Poltsikorako dirua (hilero):banakoa	105,40
8.1.3. Poltsikorako dirua (hilero):senar-emazte	158,10
8.2. Eguneko arreta zerbitzua	
8.2.1. Egun osoa	25,30
8.2.2. Gosari eta bazkaria (egun baten)	18,97
8.2.3. Arropa garbitzea (hilero)	86,43
8.3. Etxebizitza komunitarioa	
8.3.1. Gosaria, bazkaria, afaria eta arropa garbitzea (hilero)	904,33



2026. urterako prezio publikoak		Euroak
8.4. Etxez etxeko zerbitzua		
$\frac{\text{Urteko diru-sarrerak}}{12} - \frac{\text{kideen arabera indarreko hileko g.g.d. x 20}}{100} = R > 12^*$ $R \times \frac{1 + \text{unitate naturaleko zerbitzuko hileko orduko, guztira}}{10} = \text{Hileko ekarpena}$ Ekarpen ekonomikoa ezingo da inola ere hilean 25-tik beherakoa izan.		Formula aldatu: R > 25*
8.5. Harrera-etxea ostatuaren zerbitzua		
8.5.1. Eguneke egonaldia		2,14
8.5.2. Hile osoko egonaldia		64,13
9. Kirol zerbitzuengatik prezioak		Aldaketak
9.1. Pertsona abonatuak		
9.1.1. Izena emateko inskripzio-kuota, banakakoa		8,98
9.1.2. Izena emateko inskripzio-kuota, familiakoa		17,97
9.1.3. Bermeoko kirol txartela		
9.1.3.1. Bermeon erroldatutako banakoa 01/01-12/31		127,83
9.1.3.2. Bermeon erroldatutako banakako ikasle, langabe eta 65 urte baino gehiago eta 22 urte baino gutxiagokoentzat 01/01-12/31		95,98
9.1.3.3. Bermeon erroldatutako familia 01/01-12/31		245,15
9.1.3.4. Bermeon erroldatutako guraso bakarreko familia 01/01-12/31		208,38
9.1.3.5. Bermeon erroldatutako familia ugaria 01/01-12/31		183,87
9.1.3.6. Bermeon erroldatu gabeko banakoa 01/01-12/31		218,54
9.1.3.7. Bermeon erroldatu gabeko banakako eguerdiko erabilera 01/01-12/31		163,91
9.1.3.8. Bermeon erroldatu gabeko familia 01/01-12/31		385,23
9.1.3.9. Bermeon erroldatutako banakoa 07/01-12/31		95,08
9.1.3.10. Bermeon erroldatu gabeko banakoa 07/01-12/31		163,91
9.1.3.11. Bermeon erroldatutako familia 07/01-12/31		183,87
9.1.3.12. Bermeon erroldatu gabeko familia 07/01-12/31		288,93
9.1.3.13. Bermeon erroldatutako banakoa 09/01-12/31		63,92
9.1.3.14. Bermeon erroldatu gabeko banakoa 09/01-12/31		109,27
9.1.3.15. Bermeon erroldatutako familia 09/01-12/31		122,58
9.1.3.16. Bermeon erroldatu gabeko familia 09/01-12/31		192,62
9.1.4. Urdaibai kirol txartela		
9.1.4.1. Bermeon erroldatutako familia 01/01-12/31		287,60
9.1.4.2. Bermeon erroldatutako guraso bakarreko familia 01/01-12/31		244,46
9.1.4.3. Bermeon erroldatutako familia ugaria 01/01-12/31		215,70
9.1.4.4. Bermeon erroldatutako banakoa 01/01-12/31		167,90
9.1.4.5. Bermeo edo Gernikako ikasle, langabe eta 65 urte baino gehiago eta 22 urte baino gutxiagokoentzat		125,93
9.1.4.6. Beste familia guztientzat 01/01-12/31		432,40
9.1.4.7. Beste banako guztientzat 01/01-12/31		275,70
9.1.4.8. Bermeon erroldatutako familia 09/01-12/31		143,80



2026. urterako prezio publikoak	Euroak
9.1.4.9. Bermeon erroldatutako banakoa 09/01-12/31	83,95
9.1.4.10. Beste familia guztientzat 09/01-12/31	216,20
9.1.4.11. Beste banako guztientzat 09/01-12/31	137,85
9.2. Abonatuak ez dauden pertsonak instalazioetara sartzea	
9.2.1. Banakako sarrerak	
9.2.1.1. Ikasle, langabe, 65+ eta 22 urte baino gutxiagokoentzat	3,60
9.2.1.2. 21 urtetik gorakoak	6,20
9.2.1.3. Dutxa bakarrik	2,50
9.2.2. 10 sarrerako bonuak (2 hileko iraupena)	
9.2.2.1. Ikasle, langabe, 65+ eta 22 urte baino gutxiagokoentzat	32,40
9.2.2.2. 22 urtetik gorakoak	55,80
9.3. Instalazioen erreserba, orduko	
9.3.1. Squasha	3,60
9.3.2. Kiroldegiko kantxa, gela bat	14,40
9.3.3. Kiroldegiko kantxa argiarekin	18,50
9.3.4. Igerilekuko kale bat, ertaina alokatzea orduko	20,60
9.3.5. Kanpoko frontoia	5,15
9.3.6. Kanpoko frontoia argiarekin	9,25
9.3.7. Kanpoko eta herri eskolako kantxa	10,30
9.3.9. Lasaitze gunea	
9.3.9.1. Saioko sarrera	4,10
9.3.9.2. 11 saioko bonoa	41,00
9.3.10. Txartela egitea eta armairuetako giltza galtzea	4,10
9.4. Alokatzek/salmentak	
9.4.1. Squash pilotak	2,60
9.4.2. Igerilekuko txanosen salmenta	4,10
9.4.2. Kandaak	4,10
9.4.3. Nordic Walking-eko makilak alokatzea	3,20
9.5. Jarduera fisikoen tarifak	
9.5.1. Ura ikastaroak – Indoor	
9.5.1.1. Igeriketa eskola – Astean saio 1- Umeak eta gazteak	
9.5.1.1.1. Astebarruan	16,45
9.5.1.1.2. Asteburuan	18,50
9.5.1.2. Igeriketa eskola – Astean saio 1- Helduak	
9.5.1.2.1. Astebarruan	20,55
9.5.1.2.2. Asteburuan	22,60
9.5.1.3. Jaio berrientzako uretako saioak	36,00
9.5.1.4. Gimnasia uretan, akuafit, akuarunning, kardio aletak	
9.5.1.4.1. Saio 1 astean	18,50
9.5.1.4.2. Saio 2 astean	25,70
9.5.1.4.3. 3 Saio astean	31,85



2026. urterako prezio publikoak	Euroak
9.5.2. Ura ikastaroak – Outdoor	
9.5.2.1. Saio berezi bakarreko	7,20
9.5.2.2. Ur irekietan prestakuntza —4 saio—	25,70
9.5.3. Lurra ikastaroak – Indoor	
9.5.3.1. Saio bat asteen	20,55
9.5.3.2. Saio bi asteen	32,90
9.5.3.3. Gazteak: Gaztefit, Boxing, —asteen saio bi—	25,70
9.5.3.4. 60 + Gimnasia —Denboraldia - Abonatuak—	
9.5.3.4.1. Abonatuak saio bat asteen	20
9.5.3.4.2. Abonatuak saio bi asteen	25,70
9.5.3.4.3. Abonatuak hiru saio asteen	36,00
9.5.3.4.4. EZ abonatuak saio bat asteen	40
9.5.3.4.5. EZ abonatuak saio bi asteen	51,40
9.5.3.4.6. EZ abonatuak hiru saio asteen	72,00
9.5.3.5. Tailer bereziak —20 saio—: Eskalada boulderrean, ...	82,25
9.5.3.6. Saio solteak eta jarduera berezien saioak	3,20
9.5.3.7. Saio solteen hileroko bonoa	30,85
9.5.3.8. Biking birtuala —hileroko bonoa—	15,40
9.5.4. Lurra ikastaroak – Outdoor	
9.5.4.1. Saio berezi bakarreko	5,25
9.5.4.2. Aire librean prestakuntza —8 saio—	32,90
9.6. Artza frontoia	
9.6.1. Dutxa bakarrik	1,55
9.6.2. Frontoia abonatuentzat	11,30
9.6.3. Frontoia abonatu ez direnentzat	20,55
9.6.4. Frontoia alokatzea	241,60
9.6.5. Frontoia ikuskizun bat emateko alokatzea	380,35
10. Autokarabanaren zerbitzugunea	Berdin
10.1. KWh elektrizitate-kontsumo maximoa 12 orduko zerbitzua 5,00	5,20
10.2. Litroak zerbitzu bakoitzeko	4,15
10.3. Autokabanen sarbidea	
10.3.1. Goi denboraldia (Aste Santu: ostegun santuaren aurreko ostiraletik, aste-lehen santuaren ospakizunaren hurrengo igandera arte, Ekainetik - Iraila arte biak barne)	15
10.3.2. Behe denboraldia (gainerako hilabete eta datak)	6
10.3ko tarifak eguneko aplikatuko dira ibilgailua sartzen denetik 24 ordu zenbatuta	
11. Gaztelugatxeko Zerbitzuak	Aldaketak
11.1. Tarifa orokorra	10,00
11.2. 6 eta 16 urte bitarterekoak	5,00
11.3. 6 urtetik beherakoentzat	1,00



2026. urterako prezio publikoak	Euroak
12. Bizpark	Berdin
12.1. Urteko bonoa	40,00
12.2. Seihileko bonoa	20,00
12.3. Hiruhileko bonoa	10,00
12.4. Hileko bonoa	4,00

2. Kultur ekintzen prezio publikoak kobratzeko kudeaketari buruzko arauak:
 - 2.1. Onuradunentzako deskontuak ez dira metagarriak izango.
 - 2.2. Tarifen diru-bilketa, estatutuak edo esleipen-kontratuak betez, enpresa publiko edo enpresa entitate publikoek egiten badute edo enpresa pribatuek, mistoek edo, oro har, merkataritza-enpresek, eta euren izenean bidalitako ticket edo ordainagiriak erabiltzen badituzte, tarifa horietan BEZa sartuta dagoela ulertuko da.
 - 2.3. BEZaren zerga-tasak aldatzen badira, tarifetatik sortzen diren zerga-oinarriei ezarriko zaizkie indarrean dauden BEZaren zerga-tasak, eta dagokion kuota kalkulatu da.
 - 2.4. Sarrerak: Sarrera edo bonua eskuratzen den unean ordaindu beharko da eta ez da dirurik itzuliko, sarrera erreserba baterako erosi, eta erreserbatutako instalazioa erabiltzeko egoera egokian ez badago izan ezik.
 - 2.5. Kultur antzerki eta kontzertuen prezio publikoetako deskontuak kolektibo honako hauentzat finkatzen dira:
 - Gazteak, 29 urte artekoak.
 - Adinekoak, 65 urtetik gorakoak.
 - Ezgaituak, %33a baino gehiagoko ezgaitasuna dutenak. Foru Aldundiko txartelaren bitartez kreditatu beharko da.
 - Langabetuak, dagokion agiriarekin kreditatuta.
 - 2.6. Elizan egiten diren kontzertuak, ikusleentzat dohainik izango dira.
 - 2.7. Urtean behin, nagusien saio batean eta beste bat umeen saio batean, katxeta gehi takila modalitatea erabili ahal izango du Kultura Sailak. Kasu hauetan antzerki konpainien umeen sarrera prezioa 4,00 euro - 6,00 euro bitartekoa izango da eta antzerki konpainien nagusien sarrera prezioa 10,00 euro - 12,00 euro bitartekoa.
3. Udal baliabideak uztearen prezio publikoak eta fidantzak kobratzeko kudeaketari buruzko arauak:
 - 3.1. Subjektu pasiboak: Eskatzailea nor den kontuan izan barik, ekintza bera irabazi asmo bakoa denean prezio publikoa ordaintzeaz salbuetsita egongo da.
 - 3.2. Prezio publikoak aplikagarriak izango dira baita gune eta eraikin publikoak ez diren tokietan antolatutako ekimenetarako udalak utz ditzakeen ondasunetarako ere.

Tarifen arabera prezio publikoaren kontura eskatu ahal izango diren kopuruak eskatutako edo emandako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira eta tarifa bakoitzerako adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.
 - 3.3. Kudeaketa: Zerbitzua edo jarduera eskatzeko era, gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako eskaera orria aurkeztea izango da (IN-138). Bertan argi zehaztu beharko da ondasun mota eta kopurua.
 - 3.4. Eskatzaileak, udalak zerbitzua onartzeko erabakiaren jakinarazpena hartzen duen egunetik hasita, egun biko epean, eta beti ere, ekintza hasi aurretik, prezio publikoaren autolikidazioa aurkeztu beharko du Berhaz bulegoan. Ordain-



ketaren frogagiria aurkeztu ezean eta erabakian bertan adierazitako bestelako baldintzak bete ezean, ekimena bertan behera geratuko da eta baimen baldintzatua indargabetu egingo da.

Autolikidazioa ordaintzeko epea aurkezten denetik 10 egunekoa izango da eta epean ez ordaintzean, premiamenduzko prozedura aplikatuko da.

- 3.5. Fidantzak: Eranskin honetan aitaturako udal ondasunak uzteagatik, prezio publikotik aparte, fidantzak ere eskatuko dira eta gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako epean edo momentuan aurkeztu/ordainduko ditu eskatzaileak. Uzten diren ondasunen kopuruaren arabera fidantzen zenbatekoak honako hauek izango dira:

Ondasuna	Kopurua	Fidantza (€)
1. Plastikozko hesiak	1tik 20ra	87,12
	21 edo gehiago	261,36
2. Burdinazko hesiak	1tik 20ra	48,58
	21etik 50era	145,74
	51etik 90era	291,49
3. Plastikozko mahaia	1etik 10era	211,65
	11 edo gehiago	423,30
4. Egurrezko mahaia euren astoekin	1etik 10era	211,65
	11 edo gehiago	423,30
5. Egurrezko aulkiak	1etik 30era	55,90
	31tik 60ra	139,76
	61tik 90era	223,61
	91tik gora	279,51
6. Konoak	1etik 30era	24,10
	31tik 60ra	60,26
	61tik 90era	96,41
	91tik gora	120,52
7. 4 modulu arteko tarima eta eskailera		195,54
8. Eszenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera		391,07
9. Eszenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera		977,68
10. Proiektorea		35,00

4. Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen testu erregulatzailearen eranskina da testu hau.

4. *Gizarte ongizate arloko zerbitzuen prezio publikoak kobratzeko kudeaketari buruzko arauak*

1. *Harrera-etxea ostatuaren zerbitzua*

4.1. Subjektu pasiboak: gizarte urgentziatzeko egoera baten ondorioz edo etxeko indarkeriaren ondorioz aldi baterako zerbitzua eskatzen duten pertsona fisikoak edo bizikidetzak unitateak.

4.2. Salbuetsita egongo dira:

- a) Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat zuzendutako harrera ostatu zerbitzuak.



- b) Kaudimenik gabeko pertsonen emandako ostatu zerbitzuak, aipaturako karga ekonomikoak aurre egiteko kaudimenik ez daukatela egiaztatzen duen udalaren gizarte zerbitzuen txostenaren bidez egiaztatuta dagoenean.

4.3. Kudeaketa: Bermeoko Udalaren dekretu bidez onartuko da.

- a) Prezio publikoaren likidazioak hil bakoitzaren amaieran ordainduko dituzte hil horretan zerbitzua erabiltzen duten onuradunek.
- b) Lehenespenez, eta zerbitzugintza hasi baino lehen, eskarigileei likidazioak helbideratzeko kontu zenbaki bat eskatuko zaie. «Ordainagiriak helbideratuta egon beharko dira. Udalak helbideratzea deuseztatuko du, ordainagiriak kitatutako edo blokeatutako kontura itzultzen bazaizkio».
- c) Erabiltzaileak 2 hileko epea du ordainketa borondatezko epealdian egin ahal izateko, ohartarazpenaren egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- d) Hileko zerbitzuaren arabera prezio publikoaren kitapena igorriko da, eta subjektu pasiboak hile bakoitzeko azken astean prezio publikoa helbideratuta ordaindu beharko du.
- e) Ordainketa borondatezko epean egiten ez bada zorreratik betearazpen-aldia- ren hasiera automatikoa hasiko da, 2/2005 Arau Foralaren 60.2. artikularekin bat etorritik.
- f) Udal Gizarte Ongizateko ebazpen bidez zerbitzua etetzen edo iraungitzen den kasuetan, erabiltzaileak ez du prezio publikorik ordaindu beharko. Berriz zerbitzua onartzen zaionean hasiko zaio kobratzen.

4.4. Udalak onartutako Prezio Publikoak arautzen duen ordenantza orokorrean Dirubiketa eta Ikusketa araudi fiskal orokorrean agertzen dena eta aplikagarria izango da legedian.

1. Etxez-Etxeko laguntza zerbitzua

1. Etxez Etxeko Zerbitzu integral hau, osasun psikikoa, fisikoa eta gizarte ongizatearen arloan zailtasunak dauzkaten eta bakarrik bizi diran pertsonen zein familiei zuzenduta dago beraien familia eta gizarte ingurunean bizitzen jarraitzeko behar daben autonomia sustatuz.

Zerbitzuaren helburuak:

- a) Autonomian galera prebenitzea edota konpentsatzea, eguneroko bizitzako jardueran egiteko edota etxean bizgarritasun egokia mantentzeko laguntza emanez.
- b) Pertsonak bere etxean bizitzen jarrai dezaten erraztea.
- c) Onuradunen gaitasunak garatzen erraztu, bakarrik egin ezin dituzten jarduerak egiten lagunduta.
- d) Arretarako sare natural osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea.
- e) Erabiltzaileak beren ingurune komunitarioan integrazioa erraztea, isolamendu egoerak galeraziz.
- f) Bizikidetzaren giroa hobetzea. Horretarako arriskuen bat sor dezaketen egoerak saihesteko esku-hartuko da.
- g) Beste zerbitzu batzuen esku hartzea eska dezaketen egoerak detektatzeko zerbitzua izatea.

Etxez etxeko zerbitzua, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta horientzako laguntza arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 legeak eta era berean Bizkaiko Foru Aldundiak ateratako 98/2007 Dekretuak arautzen dauzan ondorengo prestazioekin bateragarria izango da:

- Familia barruan zaintza informala egiteko prestazio ekonomikoak.



— Familia barruan laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoak.

Bateragarriak egiten badira Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa, etxeko laguntzaren intentsitatea murrizteari ekingo zaio, hala badagokio eta laguntza modu honetara emanago da:

— Gradu III: 34 ordu hilean.

— Gradu II: 30 ordu hilean.

— Gradu I: 20 ordu hilean.

Etxeko laguntza zerbitzua, eguneko edo gaueko arreta zentroarekin edo zerbitzua horiekin lotutako diru-laguntza zerbitzua jasotzen bada, etxeko laguntza gehienez hilean 20 orduko izango da eta arreta pertsonalera zuzendutako jarduerekin.

2. Ordainketaren kudeaketa

1. Zerbitzu publiko hau Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuaren onura hartzen duten pertsonak ordaindu beharko dute.

2. E.E.L.Z.ren onuradunek ausentzaldietan zerbitzuaren erreserbarako eskubidea izango dute, ondoko baldintzen arabera:

a) Ausentzia borondatezkoa bada, ezin izango du urtean 30 egunetik gorakoa izan. Kasuan kasuko gizarte laguntzaileari astebete lehenago eman beharko zaio ausentziaren berri, eta bost egun lehenago zerbitzua ostera ere etxean jardunean abiarazten denean.

b) Ezinbesteko ausentzia denean (ospitaleratzea dela edo behar bezala frogatzen den kasu larria dela eta) zerbitzua behar den beste denboran gordeko da.

Kasu biotan, onuradunek ekarpenerako ezarri den portzentaia %100 ordainduko dute, zerbitzua gordetzeko eskubidearen kontzeptupean.

3. Prezio publikoaren zenbatekoa orduko 40,33 euroakoa da, zerbitzuaren kostuaren arabera.

4. Hala ere, kasu bakoitzerako eta beti ere zerbitzuaren erabiltzailearen unean uneko inguruabarrak kontutan hartuz konturako ekarpenak egiteko baremoak ezarri dira, inoizkotan ordaintzen denaren eta likidatzen denaren arteko aldearengatik kobrantzak jasotzeko eskubidearen kalterik gabe.

5. Kasu bakoitzean, zerbitzua ezartzen den unean, Batzorde Errektoreak aztertuko ditu onuradunaren ekarpenaren portzentaia ezartzeko ondoretarako aurkezten diren agiriak.

Inoiz ere ez zaie prezio publiko hori eskatuko zerbitzugintzaren kostu osoari aurre egiteko ekonomi ahalmen urria duten erabiltzaileei, eta horretarako zerbitzu hori finantzatzeko onuradunen edota Unitate Naturalaren ekarpenerako berariazko formulak ezarri dira (Prezio publikoen tarifyan taulan agertzen den formula erabiliko da.)

Inola ere prezio publikoaren kostuak ez dau hileroko diru sarreraren %10 gaitutuko.

3. Asistentzia kudeaketa

Diru sarrerak bermatzeko errenta Eusko Jaurlaritzak urterako jarritakoak izango dira.

E.E.L.Z. jasotzeko eskabidearekin batera, ondoko eranskinetan eskatzen diren agiriak ere aurkeztea derrigorrezkoa izango da. Zehaztutako agiriak ez ekartzea edo eta eskatzen dan informazioa eskutatzea zerbitzua jartzeko eskaria ezeztatzeke zioa izango da.

1. eranskina: Unitate naturalen ekarpena.

2. eranskina: Ekarri beharreko agiriak

3. eranskina: Zerbitzuaren eskabidea.

4. eranskina: Tasaren kontuko zorduntzeko baimena.

5. eranskina: Patronatuari baimena emotea banketxeke saldoak ezagutzeke



6.eranskina: Etxez Etxeko laguntza zerbitzuak eskaintzen dauzan balizko eginkizunak eta etxez etxeko laguntza zerbitzuak eskaintzen ez dauzan eginkizunak.

2. *Sancti Spiritus udalaren zaharren egoitzaren zerbitzua*

65 urte grako eta mendekotasuna duten adinekoei zuzendutako ostatu zerbitzua da. Banakako arreta integral eskaintzen da, norberaren autonomia, duintasuna eta garapen pertsonala ahalbidetzeko eta gizarte, osasun eta ongizatea bermatzeko.

1. Hileko arreta

a) Egoitzan egotea: Gela, jantoki, garbitegi, garbitasun, animazio eta honeei jago-kezan beste zerbitzuak sartzen dira prezio publiko honen barruan.

b) Bermeotarra izatea baldintzea beteten dauen egoileak, hemen ezarritako prezio publikoen %60a aurretiaz ordaindu beharko dau, honako egoeran balego:

Gizarte langileek emondako txostenen arabera, emoten jakozan zerbitzuak ordaintzeko besteko egoera ekonomikorik ez badauka eta seme-alabarik badauka eta prezio publikoak osotasunean ez, baina zati baten ordaintzeko lagundu ahal badabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean gerorapen bat izateagatik, c puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

c) Gerorapena: Bermeotarra dan eskatzailea, beti be ondoren zehazten diran egoeraren batean aurkitzen bada,prezio publikoaren-prezioa baino diru kopuru txikia goa ordaindu ahal izango dau aurretiaz zerbitzua erabiltzen duenean:

— Gizarte egoerari eta egoera ekonomikoari buruzko txostenaren arabera, bere egoera ekonomikoa jasoko dauen zerbitzua ordaintzeko nahikoa ez danean.

— Ezarten dan kuotea ordaintzeko, eskatzaileak seme-alabak badaukaz, horreek eskatzaileagaz batera prezio publikoaren %60a ordainketea ziurtatu beharko dabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean,3.d puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

Eskatzaileak jasoten dauen zerbitzuari borondatezko ukapena argudiatzen eta eskatzen badau, hau gehienez 60 egun naturalekoa izango da eta epe horretan prezio publikoaren %60 ordaindu beharko dau.

d) Erabiltzailearen zorrak: Indarreko prezio publikoen eta benetan ordaindutakoa- ren arteko diferentzia, b. atalean ezarritakoaren kontutan hartuta ere, zerbitzu-hartzailearen zor legeaz hartuko da.

Zenbateko horrek, gero kobratuko dira, diruren batzuk hartzen diranean, edo, hil eta gero, bere ondasunen kitapena egiten danean.

Horretarako, egoitzan sartzen danean, jagokon notario-agiria izenpetu beharko dau.

2. Sarrarearen kudeaketa

Bizkaiko Foru Aldundiko inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko, eta Inoren laguntza behar duten adinekoei egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorretarako eskabidearen kopia. (Egoitzan sartzeko prozesuan hau burutu behar da)

— 1. eranskina: Egoitzan sartzeko eskaria.

— 2. eranskina: Eskariari erantsi behar jakozan agiriak.

— 3. eranskina: Ekonomiari buruzko txostenerako egiaztagiriak (gaur eguneko eta orain bost urtetik honako ekonomia-ondasun egoerearen egiaztagiriak: banketxeetako mobimentuen txostenak eta jabetzearen erroldako txostenak).

— 4. eranskina: Prezio publikoaren kontura kargu baimena.



- 5. eranskina: Zor aitorpena.
- 6. eranskina: Janariak eskatzeko janari-emoilearen agindua.

3. Sancti Spiritus udalaren zaharren egoitzaren eguneko arreta *zerbitzua*

65 urtetik gora dituzten eta mendekotasun arriskua (23-24 puntu, mendetasunaren Balorazio Baremoaren arabera) edo I. graduako mendetasuna (25etik 39 puntura bitartean mendetasunaren Balorazio Baremoan arabera) duen pertsonen zuzendutako Eguneako Arreta Zerbitzua arautzeko oinarriak ezartzea.

- a) Ezarten diran prezio publikoak «Sancti Spiritus» Zaharren Egoitzan Jantoki eguneko arreta zerbitzua hartzen dabenei ordaintzeko dira.
- b) Eguneako arreta zerbitzuko onuradunek prezio publikoak ordaindu beharko dabez, hauen ordeztu eta beti ere subsidiarioki, hartzaileen sendiek ordaintzeko erantzukizuna eukiko dabelarik.
- c) Eguneako Arreta Zerbitzuaren tarifa ordaintzeko debengoa, onuradunak zerbitzua hartzen hasten dan egunetik aurrera sortzen da.
- d) Horretaz gain, hileko prezio publikoaren kalkulua egiteko aipatutako zerbitzu hau zenbat egunetan erabili dan kontuan hartuz zehaztuko da.
- e) Hala ere, jantoki sozialeko onuradunek etortzeko asmorik ez daukienean, Gizarte Ongizate Udal Patronatuan idatziz jakinaraziko dabe.

1. Hileko arreta:

- a) Egoitzan egotea: Gela, jantoki, garbitegi, garbitasun, animazio eta honeei jagokezan beste zerbitzuak sartzen dira prezio publiko honen barruan.
- b) Bermeotarra izatea baldintzea beteten dauen egoileak, hemen ezarritako prezio publikoen %60a ordaindu beharko dau, honako egoeran balego:

Gizarte langileek emandako txostenen arabera, ematen jakozan zerbitzuak ordaintzeko besteko egoera ekonomikorik ez badauka eta seme-alabarik badauka eta prezio publikoak osotasunean ez, baina zati baten ordaintzeko lagundu ahal badabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean, 3.d puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

c) Hobariak:

Bermeotarra dan eskatzailea, beti be ondoren zehazten diran egoeraren batean aurkitzen bada, prezio publikoaren-prezioa baino diru kopuru txikiagoa ordaindu ahal izango dau:

- Gizarte egoerari eta egoera ekonomikoari buruzko txostenaren arabera, bere egoera ekonomikoa jasoko dauen zerbitzua ordaintzeko nahikoa ez danean.
- Ezarten dan kuota ordaintzeko, eskatzaileak seme-alabak badaukaz, horreek eskatzaileagaz batera prezio publikoaren %60a ordaintzeko ziurtatu beharko dabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean, 3.d puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira.

Eskatzaileak jasoten dauen zerbitzuari borondatezko ukapena argudiatzen eta eskatzen badau, hau gehienez 60 egun naturalekoa izango da eta epe horretan prezio publikoaren %60 ordaindu beharko dau.

d) Erabiltzailearen zorrak:

Indarreko prezio publikoen eta benetan ordaindutakoaren arteko diferentzia, b. atalean ezarritakoaren kontutan hartuta ere, zerbitzu-hartzailearen zor legeztartuko da.

Zenbateko horreek, gero kobratuko dira, diruren batzuk hartzen diranean, edo, hil eta gero, bere ondasunen kitapena egiten danean.

Horretarako, egoitzan sartzen danean, jagokon notario-agiria izenpetu beharko dau.



2. Sarrarearen kudeaketa:

Bizkaiko Foru Aldundiko inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko, eta Inoren laguntza behar duten adinekoei egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorretarako eskabidearen kopia. (Eguneko arreta zentroan sartzeko prozesuan hau burutu behar da)

- 1. eranskina: Egoitzan sartzeko eskaria.
- 2. eranskina: Eskariari erantsi behar jakozan agiriak.
- 3. eranskina: Ekonomiari buruzko txostenerako egiaztagiriak (gaur eguneko eta orain bost urtetik honako ekonomia-ondasun egoerearen egiaztagiriak: banketxeetako mobimentuen txostenak eta jabetzearen eroldako txostenak).
- 4. eranskina: Prezio publikoaren kontura kargu baimena.
- 5. eranskina: Zor aitopena.
- 6. eranskina: Janariak eskatzeko janari-emoilearen agindua.

4. Hirugarren adinekoentzako etxebizitza komunitarioetako zerbitzuak

1. Mendekotasun arriskua (23-24 puntu, mendetasunaren balorazio baremoaren arabera) edo I. graduako mendetasuna (25etik 39 puntura bitartean mendetasunaren balorazio Baremoan arabera) duen pertsonen zuzendutako Etxe bizitza komunitarioa Zerbitzua arautzeko oinarriak ezartzea.

Intentsitate txikiko zerbitzua da, adinekoei autonomiari eusten laguntzeko eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamenduegoerak ere konpentsatzen dira.

2. Ezartzen diren prezio publikoak, 3. Adinekoentzako Etxebizitza Komunitarioetako zerbitzuak hartzen dituen «Etxebizitza Komunitarioek» ematen zaien zerbitzuak, edota beste edozein prestazio ordaintzeko, dira.

3. Eskatzaileak bermeotarrek, edota, eskaria egin baino hiru urte lehenagotik, Bermeon bizi direnek, euren ekonomi ahalmena nahikoa ez bada, prezio publikoak ordaintzeko, aurkeztutako agiriak ikusirik, Zuzendaritza Batzordearen iritziaz, zerbitzua ematea, onartuko zaie, horretarako zehazten diren dirutzak kontura ordaindurik, 4. atalean ezarritakoaren kalte barik.

4. Ezarritako prezio publikoa edo azken ordain behararen arteko diferentzia, 3. puntuaren arabera, zerbitzu-hartzailearen zor lege hartuko da.

Era berean, 3. puntuaren dirutzak ere, hartzailearen zor lege hartuko dira. Dirutza horiek, gero kobratzeko dira, dirutzaren batzuk hartzen direnean, edota, hil ondoren, bere ondasunen kitapena egiten denean. Horretarako, eta Etxebizitza Komunitarioetan sartzan denean, dagokion notario agiria izenpetu beharko du. V. Eranskineko ereduaren arabera.

5. Hartzailearen eskariz, zerbitzuak hartzea, beharrezko gauzaren batagatik, izten bada, urtean 60 egunean gehienez, epe horren barruan %60a hobarituko zaio, ordainkizunari.

6. Prezio publikoa ordaindu beharra, zerbitzua hartzen hasten denean sortzen da. 3. Adinekoentzat Etxebizitza Komunitarioetan dagoen lehen hilabetea hilko balitz, edota, beste edozergatik, Etxebizitza Komunitarioa itziz gero, hilabetekoari dagokion kitapena egingo zaio, hamabost egun edo gutxiago egon bada ere.

7. Etxebizitza Komunitarioetan sartzeko eskariarekin batera, ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu nahi ta nahiez, behar dan moduan sinatuta eta beteta:

- 1. eranskina: Etxebizitza Komunitarioetan sartzeko eskaria
- 2. eranskina: Eskariari erantsi behar zaizkion agiriak.
- 3. eranskina: Txosten ekonomikoa.
- 4. eranskina: Prezio publikoaren kontura kargu baimena.



- 5. eranskina: Zor aitorpena.
 - 6. eranskina: Janariak eskatzeko janari-emoilearen agindua.
 - 7. eranskina: Barne Araudiaren baldintzen onarpena.
5. Kirol zerbitzuen erabileraetik prezio publikoak kobratzeko kudeaketari buruzko arauak
- 5.1. Abonatuak: Abonuan alta emateak inskripzio-kuotaren ordainketa dakar berekin. Ordainketak aurretik egingo dira banku-helbideratzearen bidez. Alta eskatzen den lehen aldian ordea, dagokion ordainketa, txartelarekin egingo da, alta emateko agiri guztiak aurkezten diren unean.
- 5.2. Abonatu izaera lortzeko, beharrezkoa izango da, interesatuek, beren eskaria aurkeztea, dokumentu hauek erantsirik:
- Argazki bat.
 - NAN-a, eta hitzartutako udalerrietakoa izanez gero, gaurkotutako errolda egiaztatzea.
 - Banketxeko kontu korronteko edo libretako zenbakia eta kontu jabearen izena.
 - Alta lehen aldiz ematen denean ordainketa txartelarekin izango da.
- Familia unitatearen kasuan:
- Jabe eta onuradunen argazki bat.
 - Jabe eta onuradunen NAN-a. Hitzartutako udalerrietakoa izanez gero, eguneko errolda eta elkarbizitza egiaztatzea.
 - Familia liburuaren kopia eta familia ugaria izanez gero Foru Aldundiak ematen duen familia ugarien txartela.
 - Familiaren abonuan 21 urte-arteke seme-alabak sartuko dira.
 - Banketxeko libreta edo kontu korronteko zenbakia eta jabearen izena. Alta lehen aldiz ematen denean ordainketa txartelagaz izango da.
- Kasu bereziak:
- Argazki bat.
 - NAN-a.
 - Langabetuen, ikasleen eta 65 urteko baino gehiago duten txartela.
 - Ikasle edo langabetuek: ziurtagiria bere egoera egiaztatuz.
- Ezgaitasunen bat daukienen kasuan:
- Argazki bat.
 - NAN-a.
 - Ezgaitasun portzentajea ziurtatzen duen Foru Aldundiak emandako agiria.
- 5.3. Bermeon erroldatutako ezgaituak diren pertsona abonatuak, urteko kuotaren prezio publikoan beherapenak jasoko dute norberaren ezgaitasun portzentajearen arabera. Horretarako beharrezkoa izango da erakunde eskudunak emandako ezgaitasunaren ziurtagiria aurkeztea.
- 5.4. Abonatuei, bai familia eta baita norbanakoei ere, txartel bat emango zaie, pertsonala eta transferiezina dena, eta beharrezkoa izango dena kiroldegira sartzeko nahiz Artza Udal Frontoiko instalakuntzen zerbitzuren bat erabiltzen denean.
- 5.5. Ordainketa:
- a) Erabilera baimena hartzen den une berean ordaindu beharko dira prezio publikoak.
 - b) Kuotak urtean behin (berezko urtea) seihilabeteko (Uztailetik-abendura) edo lauhilabeteko (Irailtik-abendura) ordaindu daitezke. Urdaibai txarte-



- leko kuota aldiz, berezko urtean edo azken lauhilabetekoan (irailetik abendura).
- c) Abonatuei buruzko idatz-zati honen ondorioetarako, familia izango dira helbide berean erroldatuta dauden Erregistro Zibiletan inskribatutakoak edo izatezko bikoteak.
 - d) Urteko kuotak banketxe helbideratze bidez ordaindu beharko dira. Lehenengo aldiz, alta eskatzen denean, eskatzaileak kuota osoaren ordainketa txartelaren bidez egingo du, hurrengoak helbideratuta izango dira.
 - e) Kuota, ordainketa motaren arabera, aldian aldiko 1. hamabostaldian ordainduko da. Urteko azken lau hilabeteko abonua kasuan irailaren 2. hamabostaldian.
 - f) Helbideratutako urteko familiako abonatuak zein bakarrekoei aukera izango dute ordainketa bi zatitan egiteko: %50a urtarilaren lehenengo hamabostaldian eta %50a apirilaren lehenengo hamabostaldian.
 - g) Kuota urtekoa da, beraz, abenduaren 31 baino lehen baja emateak ez dakar itzultzerik.
 - h) Alta ematearekin batera, doako kirol txartel adimentsu bana emango zaie eskatzaileei abonatu gisa erabiltzeko. Kirol txartela galduz gero dagokiona ordaindu beharko du eskatzaileak berria ateratzeko.
 - i) Bajek jakinarazi eta hurrengo urteko urtarilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Ordainagiriak edozein arrazoiengatik ez ordaintzeak edo itzultzeak, administrazioak huts egin ezean, harpidedun izaera automatikoki galtzea dakar.
 - j) Baja hartuz gero, alta berria dagokion matrikula ordaindu ondoren egingo da.
 - k) Abonatu batek baja eskatu nahi izanez gero, baja inprimaki ofiziala beteko du. Baja eskatzeko epea berezko aldi bakoitzaren azken astean amaituko da.
 - l) Azaldutako murrizketen edo hobarien onuradun izateko (familia ugaria, ezgaituak, ikasleak ...), eskaera egin beharko da, deskontua eragin duen egoera egiaztatuz urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, hurrengo urterako ondorioekin, eta data horren ondoren eskubidea galduko da.
 - m) Kuotaren hobariak edo murrizketak ezin dira metatu.
 - n) Ez ordaintzeak: Abonu, ikastaro, erreserba eta abarren kuota/ordainagiria ez ordaintzeak pertsona abonatuaren izaera eteten du eta, beraz, baita instalazioetara sartzeko ere (egoera hori familia-abonuetako kideei ere zabaltzen zaie).
 - o) Ordainketa/sarbidea berreskuratu egingo da, ordaindu gabeko ordainagiria ordaindu ondoren.
 - p) Ordaindu gabeko hartu-agiriagatik zorra lege ezarritako epeetan preskribatzen da.
 - q) Alta berriz eskatzen bada, ordaindu gabeko kuotak ordaindu behar dira.
 - r) Helbideratutako erreiziboa atzera bueltatzeak urteko 1go hamabostaldian, urte hasieratik egindako erabilerei dagokien sarrerak ordaintzea ekarriko dau.
 - s) Bonuetako erabiltzaileei (gazteen bonua- 10 sarrera-, helduen bonua – 10 sarrera-, lasaitze gunerako bonua,...) eta kirol ikastaroetako ez abonatuak, ordaindu beharreko txartel adimentsua emango zaie, eta eskatutako erabilera amaitu ondoren kiroldegiko harreraren itzultzen duenean ordainduko itzuliko zaio.



5.6. Ikastaroak:

- a) Kirol denboraldia urritik ekainera da. Urria eta martxoa artean alta eskatzen duten ikasleek, eta beti eta ekainera arte daudenak ikastaroan, azken hile hau barne, lehentasuna izango dute izena emateko hurrengo denboraldian. Kirol-ikastaroren batean eskainitako plazak gaituz gero, okupazioa zozketa bidez erabakiko da. Abonatuak izena eman ahal izango dute epea amaitu eta aurreko taldearen zozketa egin ondoren. Kasu horretan ere, zozketa bidez ebatziko da ikastaro batean gehiegizko okupazioa izatea. Azkenik, izenematea gainerako interesdunei irekiko zaie, izena eman duten hurrenkeran, plaza guztiak bete arte. Ikastaroak eten edo ezabatu ahal zango dira, eskariak ez badu justifikatzen ikastaro horiek egiten jarraitzea.
- b) Ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona-kopururik ez badago, eten egingo da, eta izena emanda dauden pertsonen ordaindutakoa itzuliko zaie.
- c) Ikastaroetan izena eman dutenek (helbideratutako ordainketarekin) jarduneko ikastaro-egile izaten jarraituko dute denboraldi osoan, ofizialki baja eskatzen ez duten bitartean. Behin eta ikastaroak hasi, baja emateko, Udalaren Kirol Saileko bulegoan jakinarazi beharko da, baja eman nahi den aurreko hilaren 22a baino lehen.
- d) Berritzeak automatikoki egingo dira helbideratutako ordainketa aukeratzen dutenentzat, ekainera arte, hori barne. Kreditu-txartelarekin ordaintzea aukeratzen dutenek aurreko hilabeteko 22a baino lehen berritu beharko dute.
- e) Ikastaroa berritzeko ezarritako epearen barruan ordaintzen ez bada, dagoen ikastaroan baja emango da.
- f) Ikastaroetako prezioak abonatuentzako prezioak dira (Bermeoko eta Urdaibai KTX dutenentzako); abonatuak ez direnek ikastaroetan parte hartzeko publikatutako prezioen bikoitza ordaindu beharko dute.
- g) Helbideratutako ikastaroen kibraketa lehenengo astean egingo da, helbideratu gabeko ikastaroen ordainketa aurreko hileko 22a baino lehenago egingo da.
- h) Lasaitze guneko bonoak urtebeteko iraupena du.
- i) 60+ ikastaroaren tarifa, denboraldi osoari dagokio (saio bi/hiru astean, urritik ekainera). Gabonetan eta Aste Santutan aste biko oporrak eukiko dabe eta ekainaren erdialdean amaituko da ikastaroa.
- j) Urdaibai kirol txartela Bermeon aterata eta Bermeoko kirol txartela duten famili bereko seme-alabek sasoi berean egindako ikastaroetan beherapen hauek izango dituzte:
- 1goak %100ean ordainduko du, 2-ak %50eko beherapena izango du eta 3.etik aurrera ikastaroa dohainik izango da.
- k) Kiroldegia zabalik dagoen jai egunetan ez da egongo ikastarorik.
- l) Ezinezko kasuetan bakarrik onartuko da kuotaren itzulketa (lesioak edo medikuak emandako bajak), eta jarduera hori abian jartzen lortzeko ez den kasuetan hileko lehenengo lau egunetan. Baita antolakuntza arazoagatik edo bestelako ezintasunagatik ikastaro batek hile baterako aurreikusita daukan bete beharreko ordu kopurua baino gutxiago betetzen denean ere, eman gabeko denboraren arabera, zerrendako itzulketa proportzionala aplikatuko da:

Galdutako klase ordu kopurua	itzulketa (%)
%0tik-%25era	0
%26tik-%50era	25
%51tik-%79ra	50
%80tik-%100era	100